

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko abuztua

Sarrera eta ostatu-gauen kopurua 2022ko abuztuan 2021eko abuztuan baino % 11,2 eta % 7,5 handiagoa izan da

Udan, uztailean eta abuztuan, 780.797 sarrera eta 1.605.078 ostatu-gau kontabilizatu dira, eta nabarmen gainditu dira 2019ko zifrak

2022ko abuztuan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 11,2 egin dute gora, eta ostatu-gauak, % 7,5, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. Sarrerak, guztira, 397.611 izan dira, eta ostatu-gauak, 839.058. 2019ko abuztuan, COVID-19aren aurrekoan, zifrak baxuagoak izan ziren: 357.035 sarrera eta 780.269 ostatu-gau.

2022ko abuztuan, sarrera guztien % 49,0 eta ostatu-gauen % 45,1 atzeritarrenak izan dira. Zifra horiek nabarmen gainditzen dituzte 2021eko abuztuko zifrak, orduan % 31,2 eta % 27,0 izan baitziren, eta, neurri txikiagoan, baita 2019ko abuztukoak ere (sarreraren % 47,9 eta ostatu-gauen % 43,5 atzeritarrenak izan ziren).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. Abuztua 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	2021/08
EUSKAL AE	397.611	11,2	839.058	7,5	2,11	2,18
Estatukoak	202.814	-17,6	460.829	-19,1	2,27	2,32
Atzeritarrak	194.797	74,5	378.229	79,3	1,94	1,89
Araba/Álava	55.933	13,0	105.370	7,4	1,88	1,98
Estatukoak	33.456	-13,0	71.872	-11,7	2,15	2,12
Atzeritarrak	22.477	103,4	33.498	99,8	1,49	1,52
Vitoria-Gasteiz	40.549	14,9	77.030	9,3	1,90	2,00
Bizkaia	187.660	17,3	387.828	9,8	2,07	2,21
Estatukoak	97.699	-12,9	215.715	-17,8	2,21	2,34
Atzeritarrak	89.961	88,3	172.113	89,7	1,91	1,90
Bilbao	124.334	18,4	252.910	11,6	2,03	2,16
Gipuzkoa	154.018	3,9	345.860	5,0	2,25	2,22
Estatukoak	71.659	-24,9	173.242	-23,4	2,42	2,37
Atzeritarrak	82.359	56,1	172.618	66,8	2,10	1,96
Donostia / San Sebastian	91.146	3,6	211.737	5,3	2,32	2,29

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Irailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko abuztuan, hotel-establezimenduetako sarreraren % 14,1 Araban kontabilizatu dira, % 47,2 Bizkaian eta % 38,7 Gipuzkoan. Ostatu-gauak direla eta, Araban 105.370 kontabilizatu dira, guztizkoaren % 12,6; Bizkaian, gora egin du kopuruak eta 387.828 izan dira, guztizkoaren % 46,2, eta, Gipuzkoan, ostatu-gauak 345.860 izan dira, Euskal AE osoan erregistratutako guztien % 41,2.

Aurreko urteko hil bereko sarrera eta ostatu-gauekin alderatuta izan diren gorakadak, lurralde historikoaren mailan, ez dira homogeenak izan. Sarrera kopuruan, Bizkaia % 17,3ko hazkuntza izan du, Araba % 13,0koa eta Gipuzkoa % 3,9koa. Ostatu-gauean kasuan, urte arteko aldakuntzak % 9,8koak izan dira Bizkaian, % 7,4koak Araban eta % 5,0ekoak Gipuzkoan.

Hiriburuka, sarrera kopuruak, urte arteko terminoetan, % 18,4 egin du gora Bilbon, % 14,9 Vitoria-Gasteizen eta % 3,6 Donostian. Antzera, ostatu-gauean igoera % 11,6koa izan da Bilbon, % 9,3koa Vitoria-Gasteizen eta % 5,3koa Donostian.

2022ko abuztuko batez besteko egonaldia 2,11 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2021eko hil berekoa baino baxuagoa, 2,18 egunekoa izan baitzen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abuztua 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/08	p.p.*	2022/08	p.p.*	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	78,4	1,3	85,3	2,7	124,70	15,4	106,35	19,3
Araba/Álava	70,1	2,2	81,8	2,5	90,78	6,1	74,23	9,4
Vitoria-Gasteiz	68,5	2,4	83,7	3,6	79,44	9,1	66,51	14,0
Bizkaia	77,2	2,1	83,5	3,5	106,39	24,3	88,87	29,8
Bilbao	81,1	3,7	85,7	5,9	118,07	32,4	101,15	42,3
Gipuzkoa	82,6	0,2	88,6	2,0	156,18	12,1	138,37	14,7
Donostia / San Sebastian	85,6	-1,4	89,8	0,3	197,23	16,9	177,05	17,2

p.p.*= aurreko urteko hila bereko portzentajeak puntuak aldea

M/m12 Behatutako azken hila berean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m); aurreko urteko hila berekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Irailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko abuztuko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 78,4koa izan da, eta % 85,3koa, gelen arabera neurtuz gero. 2021eko abuztuarekin alderatuta, ehuneko 1,3 eta 2,7 puntu areagotu dira, hurrenez hurren. 2019ko abuztuko okupazio-mailen balioak ia osorik berreskuratu dira, % 79,6koak izan baitziren plazetan eta % 84,9 logeletan.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, Euskal AE osoan, 124,70 eurokoa izan da 2022ko abuztuan; alegia, % 15,42 areagotu da, aurreko urteko abuztuaren aldean. Gipuzkoaren kasuan, 156,18 eurokoa izan da ADRa; Bizkaian, 106,39 eurokoa, eta, Araban, 90,78 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak dira; izan ere, ADRa 197,23 euro izan da Donostian, 118,07 euro Bilbon eta 79,44 euro Vitoria-Gasteizen.


RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AE mailan, 106,35 euro izan dira 2022ko abuztuan, aurreko urteko hil berean baino % 19,3 handiago.

Uztaileko eta abuztuko balantzea: 2018tik 2022ra

Ostatu-gauak Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2022ko uztailean eta abuztuan izan duten bilakaerak agerian jartzen du Covid-19aren aurreko ekitaldietako hil beretako zifrak berreskuratu direla.

Bi hil horietan, Euskal AEn 780.797 pertsonaren sarrerak eta 1.605.078 ostatu-gau izan dira. Sarrera eta ostatu-gauen bolumen horrek nabarmen gainditzen ditu 2019ko uztailean eta abuztuan kontabilizatutakoak; urte horretan, 685.117 sarrera eta 1.472.683 ostatu-gau izan ziren. Eta are gehiago gainditzen ditu 2021ekoak, COVID-19aren pandemiak ekarri zituen ondorioen eraginpean izan ziren udakoak (649.848 sarrera eta 1.349.177 ostatu-gau).


Euskal AEko hotel-establezimenduetako ostatu-gauak, lurralde historikoaren arabera. 2018tik 2022ra bitarteko uztaileko eta abuztuko bilakaera metatua



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan udako bi hileko aldi horretan izan diren okupazio-mailek agerian jartzen dute, era berean, hotel-jarduera berreskuratu dela; % 75,2koa da, plazen arabera neurtuta, eta % 83,0koa, logelen arabera neurtuta. Lurralde historikoaren mailan, logelen arabera okupazio-maila % 87,8 izan da Gipuzkoan, uztailean eta abuztuan. Araban ere gorakada izan da, aurreko urteekin alderatuta, eta, 2022an, % 78,6ra iritsi da. Bizkaian, logelen arabera okupazio-maila % 80,3 izan da, 2019ko hil beretan erregistratutakoa baino baxuagoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gelakako betetze-maila, lurralde historikoaren arabera. 2018tik 2022ra bitarteko uztaileko eta abuztuko bilakaera metatua



Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta.

Informazio-oharra

Hotelen ETHIren estaldura % **86,4koa** izan da abuztuan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62